

Zubiak «urte berri transferentzia berri» espero duela adierazi du

Recalde sozialistak, berriz, justizia transferentzian «lasaitasuna» eskatu du

Joseba Zubia Eusko Jaurlaritzako Lehendakari eta Garapen Autonomikorako kontseilariak atzo «urte berri transferentzia berri» eskakizuna egiten zuen artean, Juan Ramon Recalde Justizi kontseilari sozialistak «lasaitasuna eta zuhurtasuna» eskatu zuen alor honetako transferentzietan.

GASTEIZ-MADRIL

Bere Saileko 1992ko aurrekontuaren aurkezpenaren egindako adierazpenetan, Joseba Zubia datorren urterako EAerako transferentziak areagotzeko eskakizuna egin zuen, «itun autonomikoa egon ala ez».

Lehendakari eta Garapen Autonomikoa Sailak 8.868 milioi pezeta (443,4 milioi libera inguru) izango ditu datorren urtean, nahiz eta beste sail batzuei dagozkien beste 3.952 milioi pezeta (197,6 milioi libera inguru) ere gestionatuko dituen.

EAJko kontseilariak iragarri zuen datorren urtarrilaren lehenengo hamabostaldian txosten bat aurkezteko asmoa daukala, komunitate autonomoari transferitzeko falta diren kompetentzien gainean. Lehenago Gobernu kontseilariaren eskutik pasatuko da, berorrek ezarriko dituelako lehentasunak transferentziok negoziatzeko.

Sail honen aurrekontuei dagozkienean, atal nagusia eraketa eta informatika programei bideratuta egongo da, 5.061 milioi pezetarekin (253 milioi libera inguru). Horietatik 3.640 milioi sail ugarietarako programa informatiboetara daude bideratuta.

Hurrengo atal nagusia egoitzei, mantenimenduei eta zerbitzu zen-



Joseba Zubia Lehendakari eta Saileko aurrekontuak aurkeztu ditu.

✓ **Gasteizko Gobernuko Lehendakari eta Garapen Autonomikoa Sailak 8.868 milioi pezeta izango ditu datorren urtean.**

traletara bideratua da, 3.896 milioi pezetarekin. Horietatik 2.136 La-kuan eraikitzen ari den Gobernu etxe berrirakoizango dira.

Aurrekontuaren hirugarren atal garrantzitsuena funtzionariak eskualduntzeko erabiliko da, 1.548 milioi pezeta, alegia. Horietatik 894 Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearentzat eta 700 milioi HABErentzat, euskarazko ikastaroak antolatzeagatik.

LASAITASUNA Atzo bertan, Jose Recalde **ETA ZUHURTASUNA** Eusko Jaurlaritzako Justizia kontseilariak gogoa erakutsi zuen Justizia arloko transferentziak lortzeko administrazio

autonomo eta zentralaren arteko el-karrizketak «lasaitasunez» eta «zuhurtasunez» ematea.

Zehatz, Rekaldek espetxe eta Justizia Administrazioako giza baliabideen transferentziak aipatu zituen, bietarik lehena Eukal Autonomi Elkarteko Autonomi Estatutuak beregain hartzen duena.

Kontseilariak Madrilin sinatu zuen Eusko Jaurlaritzaren eta Botere Judizialaren kontseilari nagusiaren artean dagoen Elkarlanerako Akordioa, EAera doazen epaile eta magistratuak heziketa berezia eskaintzeko.

Espetxe alorreko transferentziari buruz, Recaldek esan zuen «zaila» dela, «eta beraz ados ipini behar dugu Justizia Ministeritzarekin eta Espetxe Instituzioekin, transferentzia hori denbora epe egokian eman dadin zuhurtasunez jokatzeko».

Recalderen esanetan, «lehenengo ikusi egin behar dugu nola osatzen den Espetxe Administrazioa orokorrean» eta gero «pentsatu egin behar dugu nola egin ahal diogun aurre gestio eta ardura horri».

Hirugarren atentatua Iruñeko Roche-Bobois dendaren aurka

IRUNEA

Roche-Bobois enpresa frantsesak Iruñean duen dendan lehergailu batek eztanda egin zuen herenegun gauean. Bonbona txikia eta gasolina botilaz osatutako lehergailua potentzia txikikoa zen eta kalte materialak bakarrik eragin zituen, lau milioi pezeta (200.000 libera) ingurukoak, dendako jabeek egindako balorazioaren arabera.

Eztanda gaueko 1.40an gertatu zen, aurretik abisurik izan gabe. Roche-Bobois enpresak Antso Azkarra kaleko 71. zenbakian duen dendaren atzekaldean paratu zuten lehergailua eta eztandaren ondorioz sarrerako atea apurtu zen eta ikusgai zeuden altzairu batzuk kaltetuta gertatu ziren.

Inguruko zenbait etxetan ere kristalak hautsi ziren, Basoko dorrean kasu. Kalteak direla eta denda erosleak zabaltzea atzo ezinezkoa ezin zen.

Roche-Boboisek dagoeneko hiru atentatu izan ditu Iruñean. Lehenengoa, eta larriena, 1987ko ekainaren 31n izan zen eta ETA talde armatuak hartu zuen horren ardura. Kalte materialak zazpi milioi pezetakoak izan ziren orduan. Bigarrena iragan urriaren 11n gertatu zen, molotov koktel bat dendaren kontra jaurtiki zutenean eta ez zuen inork errebidikatu.

Altzari eta dekorazio dendako arduradunak atzo adierazi zenez, «ez dakit zergatik gertatzen zaigun guri hau. Beste leku askotan dago Roche-Bobois eta ez da inoiz ezer gertatu».

**Urtarrilaren 6a arte...
10'30etatik 22'30etara.
Asteko zazpi egunetan.**



**LIBURUAK
KOMIKIAK
ALDIZKARIAK
COMPACT-DISC
KASETEAK
DISKOAK
BIDEOAK
BIDEO-JOKOAK
JOKOAK
OPARIAK**

xalema

Baiona Etorbidea, 52. Ilargiaren Pasaia. Golem Eraikina.
948-17 55 38 • 31008 PAMPLONA/IRUÑA

Justizia ministro portugaldarra GALKidea indultatzearen aurka

LISBOA

Alvaro Laborinho Lucio Portugalgo Justizia ministroa Jean Labade galkideari zigorra barkatzearen aurka agertu da, mertzenari frantziarra gartzelan bait dago preso. Dirudie-nez, Justizia Ministeritzako burua-ren erabakiak ez dakar derrigorrik, zigorra barkatzea estatuburuaren eskubidea baino ez da eta.

Gainera, Laborinho Lucio ministroak aholkatu du Ramiro Moreirari ere indultorik ez emateko, Lusa agentziak iturri ofizialak aipatuta jaso zenez. Moreira Espainian dago eta bere kondena eskuin muturreko taldeek Portugalen 1970eko hamarkadaren amaieran egin zituzten ekin-tzekin lotuta dago.

Justizia portugaldarrak GALEkoa izatea eta zenbait atentatuaren parte hartzeagatik auzipatu dute Labade.